



EMAKUMEEN AURRAKO INDARKERIA

Kurtsoa / Curso:

2026ko urriaren 13tik
azaroaren 20ra

Del 13 de octubre al 20
de noviembre del 2026

Izena-ematea /
Inscripciones:

2026ko irailaren 14tik
urriaren 6ra, biak barne

Del 14 de septiembre al 5
de octubre del 2026,
ambos inclusive



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Izena emateko epea: 2026ko
irailaren 14tik urriaren 5era, biak
barne

Hasiera data: urriaren 13a

Amaiera data: azaroaren 20a

**ONLINE IKASTAROA IKASLE,
IRAKASLE ETA TEKAZELENTZAT
100 PLAZA**

EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

DOHAINIK

25 ORDU (KREDITU 1)

ARDURADUNA:

ENARA AGIRRE ARRIZABALAGA

EBALUATZAILE PANELA:

AITZIBER BAÑUELOS GANUZA

EVA MARIA MARTINEZ HERNANDEZ

EDURNE DE JUAN FRANCO

PROGRAMA

EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIA

Aurkibidea

1. SARRERA	2
2. HELBURUAK	2
3. GAITASUNAK	3
4. IKASTAROAREN OINARRIZKO EGITURA	3
5. IRAUPENA	3
6. EBALUAZIOA	4

Antolatzailea: EHuko Berdintasunerako Zuzendaritza

1. SARRERA

Genero indarkeria gure gizartearen ezaugarri dramatiko bat da, lau emakumetik hiruk nozitzen dutena, ondorio larriekin osasunean eta bizi kalitatean. Giza Eskubideen urraketa larrienetako bat da, munduko biztanleriaren erdiari eragiten dionez, hala adingabeei nola kolektibo ez normatiboei.

Genero indarkeriak deuseztatzea posible da pertsona guztiak indarkeria inola ere onartzen ez duten harremanen eta espazioen eraikuntzan inplikatzeko bagara. Indarkeriazko portaerei irmo aurre egiten badiegu, eta hurbiltasuna eta gozotasuna eskaintzen badiegu haiek nozitu dituztenei.

Ikastaro honen helburua da indarkeria matxistaren fenomenoari buruzko ulermen esparru zabalagoa eskaintzea, ikasleek indarkeria mota horren adierazpideak identifikatzeko eta horiei era efikazean aurre egiten ikas dezaten.

Indarkeria matxistak gizarte arazo gisa aztertuko ditugu, alderdi hauei erreparatuta: erasoen inguruabarrak, indarkeriaren iraupen eta ugaritze faktoreak eta aro berrietara zer-nola egokitzen diren. Hainbat genero indarkeria mota aurkeztuko dira, sexu indarkeria sakonago aztertzeko asmoz maila estruktural, sinboliko eta zuzenekoan, eta erlazio afektibo-sexualen esparruan. Azkenik, biktimek, erasotzaileek eta partaide diren pertsonen eraso horiek nola bizi dituzten aztertuko da. Hala nola euren prozesuak, eta eskura ditzaketen tresna erabilgarriak, zerbitzuak, baliabideak eta laguntzak.

Genero indarkeriak denoi eragiten digu, eta, konponbidean nork bere alea jarriko badu, indarkeriaz gogoeta egin behar da hasteko, zertaz ari garen jakiteko eta gertatzen zaiguna identifikatzeko.

2. HELBURUAK

- Genero indarkeria gizarte arazo oso larria dela eta emakumeen, adingabeen eta kolektibo ez normatiboen osasunean ondorio larriak dituela ulertaraztea.
- Indarkeriaren adierazpide guztiak eta hark ukitzen dituen pertsona guztietan zein ondorio dituen ezagutzera ematea, batik bat biktiman dituenak, eta kide den taldean, erasotzailea kontuan hartuta.
- Eskura dauden tresna, baliabide, zerbitzu eta laguntza moten ezagutza areagotzea, unibertsitatean, udalerrietan eta EAEn genero indarkeria prebenitu eta detektatzeko.

3. GAITASUNAK

1. Genero indarkeriaren jatorri, adierazpide eta ondorioen gaineko oinarritzko ezagutzak eskuratzea.
2. Zuzeneko indarkeria moten ezaugarriak bereizten ikastea, baita esperientzia traumatikoak emakumeen osasunean dituen ondorioetan eragina duten faktoreak ere.
3. Ezagutzen ditugun genero indarkeriako kasuak egoki maneiatzeko tresnak eta trebetasunak eskuratzea.
4. Genero indarkeriari buruzko legea ezagutzea; zer laguntza eta babes eskaintzen dituen, eta zer zerbitzu eta baliabide dauden.

4. IKASTAROAREN OINARRIZKO EGITURA

Eduki teorikoak bost gaitan egituratuta daude. Gai bakoitza honako elementu hauek osatzen dute:

- Unitate bakoitzaren eduki teorikoa: gaia sakon landuta dagoen ekarpen teorikoa, hogeita hiru eta hogeita hamar orrialde artekoa, irakasleak egina.
- Dokumentazioa: unitate didaktiko bakoitzak dagokion bibliografia izango du. Horrez gain, gai bakoitzean beharrezko izan litezkeen baliabideak ere erabiliko dira (artikuluak, bideoak, albisteak eta abar).
- Parte hartzeko foroa: gai bakoitzean foro bat irekiko da. Foro horretan artxibo eta dokumentuak partekatu ahalko dira.
- Testa: ikasitakoa egiaztatzeko, unitate didaktiko bakoitzaren bukaeran ezagutza test bat egin beharko da. Test hori gainditu ezinbestean gainditu beharko da, hurrengo unitate didaktikora igarotzeko.

Amaierako lana. Amaierako lan bat egingo da, 400-800 hitz artekoa.

5. IRAUPENA

Ikastaroak 25 orduko iraupena izango du hilabete batetan zehar.

Hasiera data: urriak 13

Amaiera data: azaroak 20

6. EBALUAZIOA

Esan bezala, ikastaroa bost gaik eta Amaierako Lanak osatzen dute.

Gai bakoitza hainbat aukerako galdera sorta batekin ebaluatuko da. Ikasleak aukera zuzena hautatu beharko du. Galdera sorta gainditzeko, gutxienez galderen %80 zuzen erantzun beharko dira. Horretarako, hainbat aukera izango dituzte ikasleek.

Gaiak ondoz ondokoak dira, baita galdera sortak ere. Gai batetik hurrengora pasatzeko, ikasleek gaiak gainditu beharko dituzte, emandako hurrenkeran.

5 galdera sortak gainditzea derrigorrezkoa izango da amaierako lana aurkeztu ahal izateko, eta, beraz, ikastaroa gainditzeko.

Galdera sortek ikastaro bukaerako notaren %50a balio dute. Amaierako lanak bukaerako notaren beste %50a balio du.

Amaierako lana: 3 ariketa aurkeztuko dira eta horietatik bat aukeratu beharko du ikasleak, ikastaroa gainditzeko.

Erantzunak gutxienez 400 hitz izan beharko ditu, eta gehienez 800 (12ko letra tamaina eta 1,5eko lerroartearekin).

Ondorengo baldintza hauek hartuko dira kontuan ebaluatzeko orduan:

- Erantzunak argudiatzeko, ikastaroan eskainitako eduki teorikoan oinarritzea.
- Garrantzitsua da eduki teorikoak norberaren gogoetekin eta ideiekin osatzea.

Galdera sorten eta Amaierako Lanaren behin betiko nota GAI izango da.